



EBAZPENA, 2025eko azaroaren 24koa, Unibertsitate Komunitatea Artatzeko eta Zaintzeko zuzendariarena; honen bidez, 2025-2026 ikasturterako unibertsitateko Ikasiker lankidetza beken deialdiaren ebazpen-proposamena ematen du.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuak, 2025eko abuztuaren 28ko aginduen bitartez (2025eko irailaren 5eko EHAA), Ikasiker lankidetza beken deialdia egin zuen, 2025-2026 ikasturteko unibertsitate ikasleentzat.

Agindu horren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera eratutako hautaketa-batzordeak, Ikasiker lankidetza-beken deialdiari dagokion ebazpen-proposamena eman du.

Horregatik, aipatutako aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo.- Jakinarazi, 2025-2026 ikasturterako unibertsitateko Ikasiker lankidetza beken deialdiko eskatzaileei, beka deialdiko ebazpen proposamena. I. eranskinean zerrendatzen dira esleipen-proposamena duten eskaerak, II. eranskinean ukapen-proposamena duten eskaerak, III. eranskinean ordezkoen zerrenda proposamena osatzen duten eskaerak eta IV eranskinak eskaera guztiak biltzen dituen zerrenda bat du, ikerketa talde edo zentroaren arabera multzokatuak.

Bigarren.- 10 egun baliouduneko epea ezartzea, eranskinetan zerrendatzen diren eskatzaileak beka ebazpen-proposamenari alegazioak aurkezteko edo prozeduran parte hartzeko atzera egiteko erabakia adierazteko.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan.

Itziar Fernández Villanueva

Unibertsitate Komunitatea Artatzeko eta Zaintzeko zuzendaria

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 83 02 - E-mail: huisuniv@euskadi.eus

